

## **Preso sakabanatuak**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-07-19: 2.

Alferrik bada ere, lehen aipa izan dudan auzi bat gogarazi nahi dut: ETako presoak sakabanatu egin zituzten orain urte batzu, hauei legez ezarritako kondenak gogortzeko, eta dena kondenatuen eskarmenturako. Askotan erantsi da prentsan gehigarritzko zigor hau presoentzako legez kanpoko izatez gain, familiaganako sufrimendu maliziatua erakusteko presoak egindako kalte edo gaiztakeria zigortzeaz gain errugabeko gurasoen aurkakoa zela, eta hau, mendekua, ezin duela egiazko demokrazia batek arma gisa erabili. Legeak ezarritakoa nahikoa da, legea zuzena bada. Bestalde, askotan entzun eta irakurri ditut presoen familiek autobusetan egindako bidaia luzeen nekeaz eta gastuaz, Espainiako lau muturretara bidaltzen baitituzte. Oraintxe irakurri dut Ondarroan bizi zen Estanis Etxaburu (Ceutako espetxean) presoaren aita hil dela azken bost urteotan semea ikusterik izan gabe, aita bertora joateko bidaia, eta osasuna ere, garestiegi zirelako bere fortunarentzat. Zigorak nahi bezala ezartzen dituzte, baina ez dakit konturatzen diren gaur agintzen daudenak gehiegikeria asko, tratu txarrak eta beste hauek ere krimenak direla non nahi! Ez zaiote axolik, hau dena lotsagabe egina da. Aginteak dena justifikatu eta kitatzen du, nonbait. Franquismoan ere sarri entzun genuen hainbeste.